3. Mantener una actitud crítica ante los mensajes observando el proceso del alumno y creando en todo momento un dialogo para entender cómo están comprendiendo los mensajes y qué valores están asumiendo de forma inconsciente.

4. Trabajar tanto la temática como los motivos para enriquecer el lenguaje visual de los alumnos, así como su creatividad, aumentar las capacidades o habilidades etc. Por ejemplo aprovechar sus dibujos proponiendo cambios, variaciones, nuevos personajes o inventando nuevos temas, situaciones; o utilizar otros recursos: obras de arte, marionetas o máscaras, etc.

1.3.2.2. ¿Qué papel juegan los alumnos?

En el estudio realizado por Prendes (1997) se indica que:

1. Los niños reconocen y distinguen los distintos tipos de imágenes; concretamente las imágenes "que enseñan", es decir, aquellas que transmiten un concepto, de aquellas otras que sólo contienen valores estéticos. Además, prefieren las imágenes que no exigen un esfuerzo intelectual para captar y aprender una información (imágenes estéticas).
2. Los niños no perciben las imágenes ni como los educadores ni cómo sus compañeros lo hacen. Se debe asegurar la eficacia de la comunicación y el grado en que ésta se está transmitiendo.

En consecuencia Freedman (2002) señala que será necesario que el estudiante comprenda los significados, propuestas, relaciones e influencias que tienen las imágenes. Además, se deberá animar a desarrollar una conciencia crítica. Así mismo Díaz (2009) indica que se debe acostumbrar a los alumnos a analizar la imagen con actitud investigadora, crítica y reflexiva.

Como resumen de éste apartado (Lectura e interpretación de imágenes) y siguiendo a Casablancas (2001), cuyas ideas concuerdan plenamente con mi opinión, se puede decir que educar para la imagen necesita:

- Una formación adecuada del profesorado.
- Una inclusión en los contenidos curriculares de docentes y alumnos de todos los niveles del sistema escolar.
- Que en el proceso activo del aprendizaje, además de impartir las pautas de la enseñanza de la comprensión lectora, se enseñen las pautas de la enseñanza del lenguaje visual. Es decir, así como se enseña a leer (código lingüístico) debe enseñarse la lectura de imágenes (código icónico).

1.4. Imágenes en libros de texto

Como indica Casablancas (2001) el libro de texto está especialmente diseñado para el acto pedagógico, para el sistema escolar, y por lo tanto tiene unas características propias: a) tiene un fin preciso: cubrir las necesidades de concreción curricular de la escuela; b) va dirigido a un público especial: el niño, con una edad determinada y dentro de la escuela; y c) su estructura obedece a una secuencia didáctica que supone una categorización y ordenación de contenidos, y las imágenes que aparecen están previamente seleccionadas y/o diseñadas para ello.

En los libros de texto varía el texto y la imagen teniendo en cuenta las edades de los alumnos, la peculiaridad y personalidad de la obra. Por ejemplo, en los libros de lectura del primer ciclo, el espacio que ocupa la imagen en cada página, es casi la mitad de la misma o más de la mitad con respecto al espacio ocupado por el texto. Ésto es debido al factor motivacional de la imagen que desencadena el impulso a la lectura y a la paulatina introducción que hace el niño en el mundo escrito en los primeros años de escolaridad primaria. La calidad del dibujo (colorido, adecuación para la edad a la que va dirigida) y la disciplina en cuestión (Matemáticas, Lengua, Conocimiento del Medio…) también adquieren gran importancia (Casablancas, 2001).

1.4.1. Tipos de ilustraciones

Casablancas (2001) al hablar de imágenes fijas en textos escolares considera los siguientes tipos de ilustraciones: fotografías, dibujos (realistas, caricaturescos, antiguos, abstractos, etc.), mapas (representaciones topográficas, conceptuales…), gráficos, tablas, iconos y guardas.

Por otro lado Prendes (2001) considera cuatro tipos de imágenes:

- Figurativas: cuyo sentido está claramente expresado y tratan de representar fielmente la realidad, por ejemplo una fotografía.
- No figurativas: cuya interpretación es subjetiva
- Simbólicas o esquemáticas: evocan una idea, concepto o sentimiento de forma inmediatamente identificable y tienen alguna similitud con la realidad.

- Ambiguas: No se percibe su función, es decir, son arbitrarias.

1.4.2. Funciones didácticas de las imágenes

Casablancas (2001) clasifica las funciones que las imágenes desempeñan, teniendo en cuenta su tamaño y ubicación en la página, de la siguiente manera:

- Estética motivadora: la imagen se emplea para motivar la lectura del texto que acompaña, o simplemente para disfrutar de ella.
- Explicativa: sirve para clarificar un concepto o una secuencia que esta explicada en forma escrita.
- Demarcada de temáticas: indican con un formato o color determinado hasta donde llega un tema y donde comienza otro. Por ejemplo, las guardas u orlas que organizan el espacio visual y la lectura, es decir, guían el recorrido visual.
- Apoyatura de significado del texto: clarifica una parte del texto de dudosa interpretación con una imagen.
- Informativa en sí misma: gráficos, mapas, cuadros y fotografías.
- Base de análisis de una temática: se utiliza la imagen para extraer de ella información que sirve para el tratamiento de un tema de mayor amplitud. La secuencia condiciona la funcionalidad de la imagen. Si es antes del texto, anticipa información y motiva la lectura. Si es posterior, se transfieren conocimientos a la imagen.
- Señalamiento de ilación de un tema entre diferentes disciplinas: una guarda que produce la articulación entre una temática y otra.
- Comprobadora de conocimientos: la imagen sirve de base para una actividad de tipo evaluativa.
- Unificadora: la palabra y la imagen constituyen una unidad de significación. Por ejemplo, los caligramas.

La autora señala que una misma imagen puede tener varias funciones al mismo tiempo, ya que éstas no son excluyentes.

Por otro lado, para Rodríguez Diéguez y Santos Guerra (en Marqués, 2000 y Prendes, 2001) las funciones didácticas de la imagen son:

- Función motivadora.

- Función vicarial (necesaria para el aprendizaje de algunos contenidos de naturaleza icónica).
- Función informativa
- Función explicativa (favorece la comprensión)
- Función de comprobación (facilita la verificación de una idea)
- Función redundante (de refuerzo)
- Función sugestiva (potencia la imaginación y creatividad)
- Función estética (produce nuevas sensaciones)
- Función recreativa o lúdica
- Función expresiva (facilita la expresión personal)

Según Casablancas (2001) la mayoría de los libros de texto ponen su énfasis en la función estético motivadora y la evaluadora.

1.4.3. La importancia del color en las imágenes

Prendes (1994 y 2001) y Marqués (2000), además de los tipos y funciones de las imágenes, consideran importante abordar el análisis según la predominancia y uso del color. De este modo, clasifican los colores en fríos y calientes.

- Los colores fríos son los resultantes de las mezclas verde-azul (verde, azul, violeta, gris, negro…), son sedantes, y se asocian psicológicamente a los siguientes adjetivos calificativos: umbrío, transparente, calmante, lejano, húmedo, etc.
- Los colores cálidos son los resultantes de las mezclas amarillo-rojo (amarillo, rojo, naranja, blanco…), son excitantes y estimulantes, y se asocian psicológicamente a los siguientes adjetivos calificativos: soleado, opaco, estimulante, cercano, seco, etc.

1.4.4. Simplicidad y complejidad de las imágenes

Prendes (1994) y Marqués (2000) clasifican las imágenes en:

- Simples o denotativas: tienen un único significado (monosémicas) y son objetivas.

- Complejas o connotativas: tienen significados ocultos o subliminares (polisémicas), son abiertas y subjetivas. Estas imágenes requieren más tiempo y atención para su análisis.

Para finalizar y como bien dice Prendes (1997) es necesario recalcar que la imagen tiene un importante potencial didáctico que los educadores y los editores de materiales educativos deben saber aprovechar.

2. MATERIAL ETA METODOAK

Lan honetan Lehen Hezkuntzako bigarren mailatik eskuratutako irudi desberdinak aztertuko dira, hauek, “Praktikak V” eta “Praktikak VI” ikasgaietan egondako bi gelei dagozkie. “Aurrekariak, galderak eta helburuak” atalean zehaztu den bezala, praktikak D ereduko (ikasketak euskaraz eta gaztelania ikasgai gisa) bi eskola publiko ezberdinetan aurrera eraman ziren.

Alde batetik, “Praktikak V” ikasgaian lortutako irudiak liburu hauei dagozkie:

1) “*Elkar* ” argitaletxeko “*Txanela proiektuko*” material globalizatuak:
   - Zortzi unitate didaktiko dira (2006koak) bakoitza bere lan koadernoan bilduta dagoelarik:

     1. *Zein txikia jaio nintzen!* Ni eta gure familia. Familia mota. Haurdunaldia. Proiektua: nire historia.

     2. *Nolako txabola!* Erdi Aroa: gizartearen bizimodua eta Euskal Herriaren antolaketa. Proiektua: herriaren sorreraren azterketa txikia.

     3. *Boga-boga mariñela!* Itsasoa eta euskaldunak: balearen arrantza, nabigatzaileak, piratak eta itsaslapurrak. Proiektua: itsasoko animalien bilduma.

     4. *Hamar, bederatzi, zortzi, zazpi, sei...* Unibertsoa. Galaxiak. Eguzki sistema. Planetak. Lurra. Proiektua: Eguzki sistemako planeten zintzilikarioak.

     5. *Makina matxuratuta? Goazen mekanikariarengana*. Lanbideak. Produktuen ibilbide ziklikoa. Birziklatzea. Proiektua: birziklatutako materialekin egindako artelanak.

     6. *Gora Guttenberg! Gora Marconi!* Komunikazio motak (hitzen bidezkoa, keinu bidezkoa) eta komunikabideak (irratia, telebista, prentsa). Proiektua: irratsaioa.

     7. *Goazen mendira!* Berdegune baten azterketa: bizidunak (animaliak eta landareak), bizigabeak (eraikinak). Proiektua: ibilbide baten koadernotxoa.

     8. *Amaiera da hasiera!* Zikloaren berrikustea.Proiektua: ikuskizuna.

- Idazketa lantzeko bi liburuxka: "*Euskara 2, 3. Lan-koadernoa (2003)*" eta "*Euskara 2, 4. Lan-koadernoa (2004)*".
- Irakurketa liburua: "*Irakurgaiak 2 (2005)*"

2) "*Erein (2009)*" argitaletxeko Luis Pereda-ren "*Matematika 2*" liburua.

Bestalde, "Praktikak VI" ikasgaian lortu diren irudiak honako liburu hauetatik atera dira:

1) "*Anaya-Haritza (2011)*" argitaletxeko "*Ingurunearen ezaguera*" ikasgaiaren hiru liburuxka (hiruhileko bakoitzerako bat).
2) "*Elkar (2008)*" argitaletxeko "*Irakurketa eta idazketa*" lantzeko lau lan-koaderno.
3) "*Erein (2009)*" argitaletxeko Luis Pereda-ren "*Matematika 2*" liburua.
4) "*Zubia-Santillana (2004)*" argitaletxeko "*Irakurmena lantzeko fitxak*" izeneko liburuxka.
5) "*Izar (2002)*" argitaletxeko Piedad Ateka-ren "*Buruketak A eta B*" izeneko bi koaderno.

Irudien hautaketa subjektiboa izan da, izan ere, dibertsitatea, erakargarritasun maila (estetika), transmititzen eta laguntzen dituzten ezagutzak, maneiatzen diren iturrien proportzionaltasuna… kontuan izan da. Baina hori bai, irudien analisia objektiboa izaten saiatu da.

Eskola liburuetako irudien analisia egin ahal izateko, iturri bibliografiko ezberdinak kontsultatu dira: abiapuntua Casablancas (2001) artikulua izan da, Prendes (1994, 1997 eta 2001), Marqués (2000) eta Aguirre (2000) egileen lanekin osatua. Ondoren, planteatutako helburuen garapenerako kontsideratu diren irudien tipologiak, eginkizunak, formatua, e. a. analisia egiteko irizpideak biltzen dituen txantiloia (1. taula) egin da.

Hogeita hiru irudi/orrialderen azterketa egin da, hau da, irudi bat orrialde batean den ilustrazio eta testu multzotzat jo da. Haietatik hiru orrialde bikoitzekoak dira baina irudi/orrialde bakartzat jo dira. Irudi/orrialde batean ilustrazio mota batzuk egon daitezke. Esan beharra dago, irudi bakoitza kolore ezberdineko koadro edo lauki batek inguratzen duela. Laukiaren kolore berak irudiak textu liburu berdinetik datozela adierazten du; adibidez, kolore laranjak irudi guztiak Matematikako liburutik ateratako irudiak direla esan nahi du. Helburua liburu

ezberdinak konparatzea ez denez, kolorearen esanahia besterik gabe adierazten da.

Irudi bakoitza, egindako txantiloiko analisi irizpideekin aztertuko da (1. taula). Jarraian, irudi bakoitzarekin lortutako emaitzak testu batean garatu dira (datu kualitatiboak). Ondoren, taula baten bidez eskuratutako emaitzak alderatu dira (2. taula), taula honek datu kuantitatiboak lortzera eraman du; hauek “Emaitzak eta haien eztabaida” atalean azaltzen direlarik. Bukatzeko, lortutako emaitzek ondorioetara eraman gaituzte.

Erabili diren testu liburuetako irudien azterketarako irizpideak hauek izan dira:

1. Ilustrazio motak:
   1.1. Argazkiak: pertsonen, gauzen, gertaeren edo ekintzen irudikapen eta deskribapen leialak eta zehatzak dira.
   1.2. Marrazkiak: mota ezberdinekoak: errealistak (figuratiboak) karikatureskoak, zaharrak, abstraktuak (ez figuratiboak) eta sinbolikoak.
   1.3. Mapak: eremu bateko informazioa eskaintzen duten irudikapen topografikoak.
   1.4. Grafikoak: kopuru, proportzioen edota datu estatistikoen irudikapena marrazkien, eskemen edo koordenatuen bidez.
   1.5. Taulak: datu multzo ordenatuak dira.
   1.6. Ikonoak: irudikatzen dutenarekin itxuran lotura edo antzekotasuna duten ikurrak.
   1.7. Guarda edo orlak: ikus espazioa eta irakurketa antolatzen duten elementu grafikoak dira; ikus-ibilbidearen pertzepzioa eta kokapena gidatzen dutenak.
2. Formatua: orrialdean dagoen irudiaren tamaina eta kokapena da.
3. Eginkizun didaktikoak (irudi batek aldi berean hainbat eginkizun izan ditzake):
   3.1. Estetikoa edo itxurazkoa: irudia gozatzeko erabiltzen da.
   3.2. Motibagarria: irudia testuaren irakurketa motibatzeko erabiltzen da, edo besterik gabe, berez, eginkizun motibagarria du.
   3.3. Argibide-eginkizuna: irudiak modu idatzian dagoen kontzeptu edo sekuentzia bat argitzeko edo azaltzeko balio du.

3.4. Gaiak zedarritzea: irudiek formatu edo kolore jakin batekin gai baten hasiera eta bukaera adierazten dute. Honen adibide guarda edo orlak dira, zeinak ikus espazioa eta irakurketa antolatzen duten ikus-ibilbidea gidatuz.

3.5. Testuaren esanahiaren laguntzailea edo erredundantzia eginkizuna: irudiek zalantzazko interpretazioa duen testu zati bat argitzen dute edo testuaren esanahia sendotzen dute.

3.6. Berez informaziozkoa: grafikoak, mapak, koadroak, argazkiak.

3.7. Gai baten azterketarako oinarria edo ezagutzak irudiari atxikitzea: iruditik abiatuta informazioa hartzeko eta gai zabalago bat aztertzeko edo lantzeko erabiltzen da. Sekuentziak irudiaren eginkizuna baldintzatzen du. Irudia testuaren aurretik egotekotan, informazioa aurreratzen du eta irakurketara bultzatzen du. Testuaren atzetik egotekotan, ordea, irudiari ezagutzak atxikitzen zaizkio.

3.8. Diziplina ezberdinen arteko gai baten loturaren adierazlea edo diziplina bateko gaiak seinalatzea, hau da, kolorezko guardek eta ikonoek gaien arteko lotura egiten dute eta jarduera osagarriak adierazten dituzte.

3.9. Ezagutzen ziurtatzailea edo ebaluatzailea: irudiak jarduera ebaluatzaile baten oinarri gisa balio du.

3.10. Bateratzailea: hitzek eta irudiek esanahi unitate bat osatzen dute, kaligramak hain zuzen ere.

3.11. Eginkizun bikariala**:** hitz batek kontzeptuak adierazi ezin dituenean, irudiak egoerak deskribatzen ditu. Irudiak hitzera baino polisemiara jotzen du.

3.12. Sugestio eginkizuna: irudiak irudimena eta sormena sustatzen du.

3.13. Eginkizun ludikoa: irudiak jolas elementu gisa balio du.

3.14. Adierazpen eginkizuna: irudiak adierazpen pertsonala errazten du.

4. Irudi sinple edo konplexuak**.** Irudi sinple edo denotatiboek esanahi bakarra dute, objektiboak eta monosemikoak dira. Irudi konplexuek edo konnotatiboek, aldiz, ezkutuko esanahiak dituzte, irekiak, subjektiboak, eta polisemikoak dira.

5. Kolorearekin/ kolorerik gabe**.** Kolorea duten irudiek arreta bereganatzen eta balio motibatzaile handia dute. Aldi berean, informazioa gaineratzen dute. Koloreak bi multzotan sailkatzen dira. Alde batetik hotzak (berde-urdin

nahastearen ondorioz sortzen direnak), lasaigarriak dira eta psikologikoki adjektibo kalifikatzaile hauekin erlazionatzen dira: itzaltsu, garden, urrun, heze, e.a. Eta beste alde batetik, beroak (hori-gorri nahastearen ordorioz sortutakoak), ernagarriak eta estimulatzaileak dira eta psikologikoki adjektibo kalifikatzaile hauekin erlazionatzen dira: eguzkitsu, hurbil, lehor, e.a.

6. Estereotipoak. Irudiek nabarmentzen dituzten balioen eta eduki ideologikoen adierazleak dira. Lan honetan ondorengoak kontutan hartu dira: generoa (emakume, gizon, neskato, mutila), adina (gaztea, heldua, zaharra), gorputza edo fisikoa (pertsona ile-horiak, gizenak, argalak, e.a.), kulturala (etniko-arrazazkoa, erlijiosoa) eta gizarte maila (aberatsak, pobreak). Gainera, estereotipotzat hartu dira: fabrikatuta dauden produktuen imitazioa (Walt Disney-ko pertsonaiak eta telebistako marrazki bizidunak), izaera orokorreko aurretik itxuraturiko eskematizatzeak (haurrentzako ikonografia zehatzak: eguzkiak, etxeak, zuhaitzak, aurpegi borobilak…), eta animalien pertsonifikazioa (pertsona gisa adierazten diren animaliak).

Jarraian, azterketa egiteko erabili den txantiloia agertzen da, erabilitako irizpideak biltzen dituelarik (1. taula). Taulan ikusiko diren irizpideez gain, ilustrazioen iturri ezberdinak aztertu dira, hau da, hauen jatorria: egunkaria, aldizkaria, artelana…

1. taula: Irudien azterketarako txantiloia

		1. irudia	2. irudia	3. irudia	4. irudia	.....
1. Ilustrazio motak	1.1. Argazkiak					
	1.2. Marrazkiak					
	1.3. Mapak					
	1.4. Grafikoak					
	1.5. Taulak					
	1.6. Ikonoak					
	1.7. Guarda edo orlak					
2. Formatua	Tamaina eta kokapena orrialdean					
3. Eginkizun didaktikoak	3.1. Estetikoa					
	3.2. Motibagarria					
	3.3. Argibide-eginkizuna					
	3.4. Gaiak zedarritzea					
	3.5. Testuaren esanahiaren laguntzailea edo erredundantzia eginkizuna					
	3.6. Berez informaziozkoa: grafikoak, mapak, koadroak, argazkiak.					
	3.7. Gai baten azterketarako oinarria edo ezagutzak irudiari transferitzea					
	3.8. Diziplina ezberdinen arteko gai baten loturaren adierazlea edo diziplina bateko gaiak seinalatzea.					
	3.9. Ezagutzen ziurtatzailea edo ebaluatzailea					
	3.10. Bateratzailea					
	3.11. Eginkizun bikariala					
	3.12. Sugestio eginkizuna					
	3.13. Eginkizun ludikoa					
	3.14. Adierazpen eginkizuna					
4. Irudi sinple edo konplexuak	4.1. Denotatiboak					
	4.2. Konnotatiboak					
5. Kolorea	5.1. Txuri eta beltza					
	5.2. Koloreak (hotzak/beroak)					
6. Estereotipoak	6.1.1. Kulturala: etniko-arrazazkoa, erlijiosoa					
	6.1.2. Gizarte mailakoak					
	6.1.3. Fisikoak (gorputzezkoak)					
	6.1.4. Genero					
	6.1.5. Adina					
	6.2.1. Walt Disney-ko pertsonaiak edota telebistako marrazki bizidunak					
	6.2.2. Aurretik itxuraturiko eskematizatzeak					
	6.2.3. Animalien pertsonifikazioa					

3. EMAITZAK ETA HAIEN EZTABAIDA

Jarraian, aukeratutako hogeita hiru irudien analisiaren deskribapena, lortutako emaitzen laburpen taula (2. taula) eta emaitzen gaineko argudioa aurkezten da.

3.1. Irudien analisiaren deskribapena

1. irudia: “Siesta”



1. FITXA

Izena: _____

Eguna: _____

Siesta

Udalekuetan bada batere gustatzen ez zaidan gauza bat: egunero, bazkaldu ondoren, lo egin beharra. Siesta egitea derrigorrezkoa da, alferrikakoa da aitzakiatan ibiltzea. Eta hori ez da bidezkoa, ezta? Zeren goizetan, ohetik jaiki ondoren, ez baitugu askorik egiten: gimnasia egin, geure burua garbitu, oheak egin, gosaldu, hondartzara joan, itsasoan bainatu eta hondarretan jolasean ibili, besterik ez. Eta horren ondoren ez dugu zertan nekaturik egon eta lo kuluxkarako beharrik izan.

Dena den, siestak badu gauza on bat: taldeko burua etortzen da barrakoira gu zaintzera eta ipuinak kontatzen dizkigu lasai-lasai egoteko. Eta hori gozamena da!

RENÉ GOSCINNY
Nikolas Txikiren oporrak

Irudia ilustrazio bat da, marrazki bat hain zuzen ere. Goiko aldean kokatuta dago eta orrialde erdia hartzen du. Hainbat eginkizun ditu: jarraian datorren testua irakurtzera bultzatu, ikasleak irakurriko duena azaldu eta haurra hau koloreztatzera kinatzen du, azken hau eginkizun ludikoa izanik. Irudi sinple eta objektiboa da (denotatiboa). Txuri-beltzean egina dago, ikasleek koloreztatzea ahalbidetuz. Marrazki honen protagonistak mutilak besterik ez dira, eta honek, genero estereotipora bidea ematen du. Horretaz gain, adinaren estereotipoa nabaritzen da haurrek duten jarrera bihurri eta desordenatuan. Marrazkia, berez, aurretik itxuraturiko eskematizatzea dela esan daiteke; hau, agertzen diren objektuetan, jantzietan eta haurren gorputz tankeran (aurpegi borobiletan) antzeman daiteke.

2. irudia: “Behin joan nintzen”

Behin joan nintzen

Behin joan nintzen azokara,
erosi nuen txakur bat;
txakurrak txau txau txau
nik txitxi berari:
ekarri nuen etxera.

Behin joan nintzen azokara,
erosi nuen txistu bat;
txistuak fli fli fli
txakurrak txau txau txau:
eraman nion amari.

Behin joan nintzen azokara,
erosi nuen txori bat:
txoriak txio txio,
nik berriz negar lodi:
ihes egin zuen basora.

Ekintza ezberdinak egiten azaltzen den neskaren hiru irudi agertzen dira. Ilustrazioak dira, marrazkiak. Hiru irudiak orrialdearen leku ezberdinetan kokatuta daude, haien artean hiruki bat sortuz (modu berean, baina alderantziz, testua azaltzen da; honek ere hiruki bat sortzen duelarik) eta orrialdearen bi heren hartuz. Irudiek irakurtzera motibatzen dute, izan ere, ez dago oso argi neska zertan ari den; eta gainera, hauek eginkizun ludikoa betetzen dute margotzera bultzatzen dutelako. Irudi sinple bat da eta txuri-beltzean egina dago. Neskaren janzkera oso estereotipatuta dago: daraman arropa oso konplexua da (osagarri asko ditu, bufanda eta orkilla besteak beste), eta honek, “neska aberaskume”-tzat hartzera bultzatu dezake. Janzkeraren diseinua dela eta, kolore askoren erabilpenera sustatzen du. Bai irudiek eta bai testuek taldeko jolasak egitera bidea ematen dute: abestu, dantzatu, keinuak egin, testu berriak sortu eta gorputz adierazmena landu.

3. irudia: “Puxikak eta hodeiak”



Irudia hodei eta puxiken multzo errepikakor bat da, orrialde osoa betetzen duten ilustrazio ikonikoak hain zuzen ere. Honen eginkizunik garrantzitsuena, ikasleak eramanik gabeko batuketak egiteko gai diren ala ez ebaluatzea da. Testurik gabeko ariketa dela kontuan izanik, irudia bera da egin beharrekoa azaltzen duena (argibide-eginkizuna), dauden elementuen inguruko informazioa ematen duena eta eragiketaren ebazpenerako ikasleek jarraitu beharreko prozesua argitzen duena. Irudia txuri-beltzean osatutako ikonografia oso sinplea da, haurrentzako aurretik itxuraturiko eskematizatzeak hain zuzen ere.

4. irudia: “Usoak eta frutak”



Orrialde honetan bi ilustrazio (marrazki) daude. Alde batetik, orrialdearen goiko ezker aldean teilatu baten gainean azaltzen diren usoak; eta bestetik, beheko eskuin aldean fruta-ontzi bat. Irudiak posizio diagonalean kokatuta daude eta hauek orrialde erdia gutxi gorabehera hartzen dute (testua, irudien aurkako aldean kokatuta dago, posizio diagonalean). Ilustrazioek argibide eginkizuna dute testuarekiko. Usoen marrazkiak, buruketan gehiketa egiteko zifrekin ez dator bat, dena den, batzuk teilatuan daudelaren eta beste batzuk iristear daudelaren ideia adierazten du. Fruta-ontziaren marrazkian gehitu behar diren zifren eta fruten artean elkarrekikotasuna dago. Usoen marrazkiak konnotazio subjektiboak azaltzen ditu: irudiak ez du buruketaren errealitate guztia adierazten. Aitzitik, fruta-ontziaren irudia guztiz denotatiboa da, hau da, irudiaren edukia buruketara moldatzen da. Ilustrazioak txuri-beltzean egonik, ikasleek hauek margotu dezaten aukera ematen dute. Irudiek haurrentzako aurretik itxuraturiko eskematizatzeak izaten jarraitzen dute.

5. irudia: “Pertsonaiak aurkezten”

Orrialde bikoitzeko irudi honek, liburuan agertzen diren ariketetan ikasleria gidatu eta lagunduko dituzten pertsonaiak aurkezten ditu. Jarraian aurkeztuko diren hazpegi karikatureskoak ditu. Marrazkiak eginkizun estetikoa eta ludikoa dauka, ikaslegoa disfruta dezan eta azalduko diren ariketak egitera bultzatzen die. Irudiak itxura sinplea dauka, baina aldi berean, elementu konnotatiboak antzematen dira: ustekabea, harridura, dibertsioa, magia, jolasa… aurrerantzean haurrek aurkituko duten zerbait (irudiaren ezkerreko aldea). Ilustrazioak dituen kolore erakargarri, bero eta estimulagarriek marrazki bizidunak gogorarazten dituzte. Pertsonaia hauek sozialki hain zuzenak izaten saiatzen dira, non estereotipatuak eta bortxatutak dauden (karikatureskoa urratzen dute). Lehenik eta behin, irudiaren eskuineko aldean, mutil ikastun (betaurrekoduna), zuzena, langilea eta neska “panpina”, lodixka, bihotz onekoa, errugabea eta ile-horia (familiarki oso zaindua eta babestua) azaltzen dira. Biak ezkerraldean aurkezten den ekintzan guztiz sartuta daude. Bigarrenik, ekintzatik fisiko eta psikikoki aldentzen diren bi neska daude. Lehenengoak itxura afro eta janzkera kasuala dauka eta keinuak erabiliz, atzean dagoen

bigarren neskarekin komunikatzen da. Hauek janzkeran eta transmititzen duten jarrera bihurrian, bat-batekotasunean, gehiegizko izaeran eta testuingurura moldatzeko gabezian bat datoz. Kasualitatez, bi neska hauen azal kolorea ilunagoa da aurrekoen kolore arroxa-txurixkarekin alderatuta. Baliteke ilustrazioa egin duenak gelatan dagoen aniztasuna erakutsi nahi izatea.

6. irudia: “Urtaroak eta urteko hilabeteak”



Urtea, urtaroak (ikonoz irudikatuta) eta hilabeteak eskematikoki adierazten dituen grafiko baten aurrean gaude. Orrialdearen goiko aldean kokatuta dago eta honen herena hartzen du. Eginkizunik nagusiena informatzearena da, ikasleek iruditik informazio garrantzitsu eta sakonena hartuko dute, ariketak egiteko baliagarria izango zaiena. Grafikoa bere diseinuan, koloreetan eta elementuetan oso estetikoa da (eginkizun estetikoa). Irudi honek gozatzera bultzatzen du, izan ere, sentikortasunak eta oroimenak burura ekartzen ditu. Irudiaren estetika dela eta, zama konnotatibo handia dauka; eta aldi berean, hainbat elementu objektibo hartzen ditu bere baitan (urtea, urtaroak, hilabeteak, beroa, hotza, hostoen erortzea eta berritzea). Urtaroen arabera koloreztatutako irudia da: kolore beroak udan eta udazkenean, kolore hotzak neguan eta udaberrian. Urtaro bakoitzeko elementu esanguratsuenak irudikatzeko, haurrentzako aurretik itxuraturiko eskematizatzeak erabiltzen dira; hala nola, eguzkian, loreetan erortzen ari diren hostoetan eta elur panpinean ikus daitekeen bezala.

7. irudia: “Pisuaren arabera ordenatzea”



Orrialde honetan hiru ilustrazio ezberdin daude, hauetako bakoitza ariketa ezberdin bati dagokio eta enuntziatua testu motzen bidez azaltzen da. Hauetako bi grafikoak dira, izan ere, marrazkien bidez kopuru eta proportzioak azaltzen dira. Hirugarren irudia, erdian dagoena, marrazki figuratibo edo errealista eran azaltzen (edo saiatzen…) diren sei elementuz osatutako ilustrazioa da. Beheko grafikoan, ariketarekin batera, liburuko pertsonaietako bat agertzen da (ikusi 5. irudia). Hiru ilustrazioek orrialdearen bi heren hartzen dute eta egin beharreko azalpenaren azpian agertzen dira, testuaren atzean hain zuzen ere. Ilustrazio hauen eginkizuna, berez, informatzailea da, baina Lehen Hezkuntzako bigarren mailako gaitasun kognitiboa dela eta, nahasteak eta akatsak sortu daitezke (ura eta lurraren edo haurra eta zaldiaren arteko pisua alderatzean). Ariketa hauek ikasleek ni praktiketan nengoen bitartean egin zituzten, eta hauen zailtasunak, zalantzak eta akatsak ikusteko aukera izan nuen. Irudiek sinpleak (denotatiboak) izateko nahia aurkezten dute, baina

ez dira objektiboak, eta horren ondorioz ikasleei nahaste edo akatsak sortzen dizkiete eta subjektibitatea bultzatzen dute. Mutil potoloaren estereotipoa nabaritzen da, irudikatuta dagoen moduan zaldia baino pisutsuagoa dela ematen duelako. Ziurrenik, gelan algarak eta konparaketak eragingo ditu. Azkenik, erdiko ilustrazioak, Disney-ko animalien pertsonaiak gogorarazten ditu bere karakterizazioa eta pertsonifikazioa dela eta.

8. irudia: “Hainbat animalia daude”


6 Hainbat animalia daude

Edurne eta Ibon oihanera joan dira oporretan. Aurretik inoiz ez dituzte animalia hain politak eta hain bereziak ikusi. Argazki asko atera dituzte egunerokoan ipintzeko. Animalia horiei buruzko informazioa ere bilatu dute, Peiok zoologoa izan nahi du eta.

92 laurogeita hamabi

Ilustrazio honetan, landaredi ugari, ibai bat eta hainbat animalia azaltzen den oihana ikus daiteke. Esploratzaile janzkera duten haurrak (mutila eta neska) ikusten dutenagatik liluratuta agertzen dira. Irudia ilustrazio bat da, marrazkia, eta orrialdearen goiko aldean kokatuta dago honen bi heren baino gehiago hartuz. Ikasleek informazioa har dezaten, aurrezagutzekin lotu dezaten eta orrialdearen goiburuan azaltzen den gaiarekin has daitezen erabiltzen da. Gaiaren izenburua guarda edo orla berde baten barnean agertzen da, izan ere, kolore hau liburuaren identifikatzailea da, baita inguruneako unitate didaktiko guztien kolorea ere. Guarda edo orlaren barnean, eskuineko aldean, giza ariketekin erlazionatutako ikono abstraktuak agertzen dira, pertsonak ingurunarekin duten elkarrekintza adieraziz. Irudiaren tamaina handiak eta bere testuaren aurrean duen posizioa dela eta jarraian datorren testua irakurtzera

motibatzen du. Irudi sinplea da, objektiboa izaten saiatzen dena; baina elkarrekin bizi diren animali eta landarez beteta dago. Haurrak marrazki bizidunen eta liburuen bidez sortu duen irudimenera edo ideietara moldatzen da (haurrentzako eskematizatzeak). Kolore hotzak nagusitzen dira, berdea eta urdina; psikologikoki gauza urrunetara, hezeetara, itzaltzuetara, ilunetara lotuta daudenak. Hauek, animalia exotikoei bizileku bezala balio die. Animaliak pertsonifikatzeko xedea nabaritzen da, begiradekin gehien bat; baliteke honekin animaliak ikasleekin komunikatzearen sentsazioa lortu nahi dela, ikasleak gaira erakarriz. Azkenik, ikono abstraktu bat -ziurrenik barraskilo bat eta identifikatu gabeko beste elementu bat- erabiltzen da liburu osoan zehar orrialdeak adierazteko.

9. irudia: “Askotariko paisaiak ikustea gustatzen zaigu”



8 Askotariko paisaiak ikustea gustatzen zaigu

Marta leku askotara joan da. Leku batzuetan bero egiten du, eta beste batzuetan hotz. Askotariko landareak eta animaliak ikusi ditu.

Nire lagunaren esanetan, edozein lekutan paisaia ederrak eta harrigarriak ikus daitezke.

120 ehun eta hogei

Argazki ezberdinak ikusten agertzen den neska aurkitu daiteke irudi honetan. Bere irudimenetik lau argazki azaltzen dira, zeinetan paisaia ezberdinak irudikatzen diren. Hauek, irudiaren zati nagusiena eta handiena hartzen dute. Bi ilustrazio mota aurki daitezke: haurraren marrazkiaren irudikapena eta paisaien argazkiak. Irudia, zeina goiko aldean kokatuta dagoen, orrialdearen bi heren baino gehiago hartzen ditu. Honen eginkizun nagusiena gaian landuko diren paisaia naturalak aurkeztea da, eta honekin batera, haurrek dituzten aurre-ezagutzak plazaratzea. Irudia testuaren aurretikoa da, informazioa aurreratuz eta irakurtzera motibatuz. Honi esker, ikasleek neskatxak bisitatu dituen paisaiak direla eta hauetan ateratako argazkiak bere kutxan sartuta dituela ulertuko dute. Ilustrazio denotatiboa da, errealitatea den bezala irudikatzen duelako. Paisaia mota bakoitzari dagokion koloreen aniztasuna nabaritzen da:

hotzek hezetasuna edota hotza, beroek beroa edota lehortasuna. Neskatxa eta bere katuaren marrazkia, azterketa osoan zehar ohikoa izaten ari den bezala, haurrentzako aurretik itxuraturiko eskematizatzeak dira. Orrialdearen goiko aldean guarda edo orla berdea ateratzen jarraitzen da, zeinak inguruneko gaia dela adierazten duen. Honekin batera, gizakia eta ingurnearen elkarrekintza adierazten duten ikono errepresentatiboak azaltzen dira; eta bestalde, orrialdea identifikatzen duen ikono abstraktua.

10. irudia: “Animali ornodunak eta ornogabeak”



Ikasten dudana berrikusi

• Ornodunen zein taldetakoa da animalia bakoitza? Idatzi.

• Inguratu ornogabeak.

Txipiroia | Txirla | Urtxintxa

Kakalardoa | Kanarioa | Armiarma

• Idatzi intsektuetatik lortzen ditugun onurak.

102 ehun eta bi

Irudia animalia ezberdinen bost argazkiz osatua dago. Orrialdearen goiko aldean kokatuta dago eta honen erdia hartzen du. Guarda edo orla, oraingoan, laranja da; liburu berdinarekin jarraitzen dugu baina kolore honek ebaluatu (guarda edo orla urdinarekin) baino lehen ikasitakoa berrikusteko dela adierazten du. Eginkizunik nagusiena ikasleek ikasitako jakintzak egiaztatzea da, hauek indartuz, zabalduz eta zuzenduz. Irudiak ariketaren oinarria eta abiapuntua dira: ikasleek haien jakintzekin erlazionatzen eta adierazterakoan gaiaren edukiak errepasatzen dituzte. Argazkiek, berez, informazio objektibo handia igortzen dute, baina informazio hori ez da benetan garrantzitsuena, animalien sailkapena baizik. Argazki hauek kolorean egonik, animalia bakoitzaren ezaugarri esanguratsuenak bereiztea ahalbidetzen dute. Azkenik, orrialdea adierazteko ikonoa agertzen da.

11. irudia: “Ugaztunak”



Osatu.

Ugaztunek _____ tik hartzen dute arnasa.

Ugaztun gehienek gorputza _____ estalita dute.

_____ tik jaiotzen dira.

Idatzi ugaztun hauen izenak eta margoztu kodearen arabera:

ibili igeri hegan egin

Ordenatu hitzak eta idatzi esaldia.

gara. ugaztunak Pertsonak

laurogeita bost

Ilustrazio honek aurreko orrialdean ugaztunen inguruan azaltzen diren jakintzei jarraitzen die. Fitxa honetan agertzen diren ariketei esker, ikasleek kontzeptuak antolatu eta barneratzen dituzte. Irudi honek ikaste prozesu horretan parte hartzen du eta aurreko orrialdeko saio berean egiten da. Txuri-beltzean egindako marrazkiak dira eta ondoren, kodeen arabera margotu beharko dituzte. Orrialdearen erdialdean kokatuta dago eta honen herena hartzen du. Ikasleek klasearen amaieran egingo dutela kontuan izanik, helburu ludikoa du: izenak jarri eta margotu. Goiko aldean, teoria orriei dagokien orla berdea agertzen da eta, amaieran, orrialdea adierazten duen zenbakizko eta idatzizko ikonoa. Animaliak sinpletasun handiarekin karakterizatuta daude, eta horrek, haurrentzako aurretik itxuraturiko eskematizatzeak gogorarazten ditu.

12. irudia: “Landarearen atalak”



Landarearen atalak

Irakurri eta ikasi.

Landareek lurra, ura, airea eta Eguzkiaren argia behar dute bizitzeko. Landarearen atal bakoitzak eginkizun bat du:

Landare batzuek **fruituak** dituzte.

Hostoak zurtoinetatik edo adarretatik sortzen dira. Airetik oxigenoa hartzen dute.

Sustraia lurraren azpian dago eta landareak behar dituen ura eta gatz mineralak xurgatzen ditu.

Zurtoinak landareari eusten dio.

Zer behar dute landareek bizitzeko? Margotu.

ura | airea | hotza | harriak | Eguzkiaren argia | lurra

Idatzi **E** egia bada eta **G** gezurra bada, eta zuzendu esaldiak.

Landareek aireko oxigenoa zurtoinetik hartzen dute. ☐

Landare batzuek fruituak dituzte. ☐

Sustraiak lurreko ura xurgatzen du. ☐

Hostoak sustraitik sortzen dira. ☐

108 ehun eta zortzi

Koloreztatutako fruta-arbolaren marrazki txikia, orrialdearen goiko aldean testuz inguratuta dago. Argibide-eginkizuna dauka eta gainera, testuaren esanahia ulertzera laguntzen du (sugestio eginkizuna). Ikasleak, zuhaitzaren hostoak, fruituak, adarrak, enborra… ikustera ohituta daude, honen sustraiak (begi bistan ez daudenak) eta hauek duten eginkizuna (landarearen elikaduraren oinarria) ikustera, ordea, ez. Kolorezko irudi oso sinplea da, haurrentzako helburu didaktikoa duen ohiko eskematizazioa hain zuzen ere. Goiko guarda edo orlak ingurunearen ezagueraren gai honen inguruan teoria dagoela adierazten du. “Landareak zaindu behar dira” izenburua duela kontuan izanik, zuhaitz baten ikono pertsonifikatua agertzen da orlarekin batera. Beheko ezker aldean, orrialdea adierazten duen ikonoa agertzen da, baita zenbakia modu idatzian.

13. irudia: “Zenbakiak”



Irudi honek orrialde osoa hartzen du, eta bertan, bederatzi multzo agertzen dira, guzti hauek errepresentazio ikonikoak izanik. Ikasleek zenbaki eta letren bidez multzo bakoitzean agertzen diren elementuak adierazi behar dituzte. Hau dela eta, eginkizun bikoitza betetzen dute: alde batetik, ikono multzo bakoitzak kantitate zehatz bat adierazten du (eginkizun informatzailea), eta bestalde, ikaslearen zenbakien ezagutza egiaztatzeko. Beheko aldean, laranja koloreko guarda edo orla bat ageri da. Kolore hau, sail bereko lan koaderno multzoen adierazgarria da, hau, bere guardetan, orrialdeen adierazleetan, izenburuetan eta ilustrazio gehienetan ikus daiteke. Laranja kolore beroa izanik, lan egitera bultzatzen du. Ikonografia sinplea da eta izaera eskematikoa dauka; garrantzitsuena ez da irudiaren errealismoa, honek errepresentatzen duena baizik. Modu honetan, ikasleek ez dute marrazkiekin arreta galduko eta ariketa egitera mugatuko dira.

14. irudia: “Elkarrizketa, gozogilea”

Irudia orrialde osoa hartzen duen marrazkia da, kolore lauak (laranja, beltza eta grisa) eta tendentzia errealista dauka. Ilustrazio honek beheko eskuin aldean txertatuta dagoen elkarrizketa irakurtzera bultzatzen du. 2. irudian: *“Behin joan nintzen”*, antzeko ilustrazio bat jasota dago; baina honek estetika eta kolore ezberdinak ditu. Beste eginkizun adierazgarri bat iradokitzearena da (sugestio eginkizuna), izan ere, pertsonaia nagusia aldatuta, elkarrizketa ezberdinak sortzea ahalbidetzen dio ikasleari; modu honetan, irudia ikasleen adierazmen pertsonala eta taldeko eginkizun ludikoa erraztuz. Irudia sinplea da, denotatiboa, eta kolore hotzak eta beroak txandakatzen dira. Orrialdea guarda edo orla laranjak ixten du, mota honetako liburuxka guztietan bezala.

15. irudia: “Elkarrizketa, borda”

Ilustrazio hau komik eran dauden lau irudien segida da. Galduta dagoen ardikumearen eta amonatxo baten artean sortzen den elkarrizketa ageri da bunbuila batzuen barruan. Irudia orrialdearen goiko aldean dago eta honen erdia hartzen du. Ariketa honen xedea, bunbuilen barruan dagoen istorioa beheko aldean elkarrizketa moduan berridaztean datza. Irudi honek irakurketara bultzatuko duen eginkizun motibagarria du, aldi berean, elkarrizketaren sekuentzia argitzen du (argibide-eginkizuna). Irakurketaren sekuentzia ezkerretik eskubira eta goitik behera da. Irudiak sinpleak dira, eskematikoak, eta kolore lauak eta hotzak (beltza eta grisa) dira nabarienak. Liburuxkaren estetikaren adierazgarriak diren laranja kolorezko ukituak daude. Amonatxoaren irudian adinaren estereotipoa hauteman daiteke: makurtuta

dago, bastoia darama, moño moduan bilduta duen ile txuria dauka, izaeraz adeitsua, maitagarria eta abegitsua da; eta inguru zaharkitu batean bizi da: bordan. Behe aldeko orla eta orrialdearen adierazlea liburuxka hauetan ohikoa den kolore laranjazkoa da.

16. irudia: “Itsas kontua”

Fitxa honen helburua eskuinean agertzen diren hitzak erabiliz, ezkerreko poema osatzea da. Ondoren ikasleek, “Pello Joxepe” edo “O, baserritxo” doinuekin abestuko dute. Ilustrazioa marrazki bat da, zeina orrialdearen behe aldean dagoen eta honen erdia hartzen duen. Gainera, testuak zipristinduaren efektua egiteko eta enkuadratzeko olatuen estetikarekin jolasten du. Ilustrazio honek eginkizun anitzak dauzka: poema eta honetan agertzen diren hainbat kontzeptu argitzen laguntzen du (argibide-eginkizuna); bukatu gabeko ekintza izanik, irudimena sustatzen du, izan ere, ezin da jakin arrantzaleek balea harrapatzen duten ala ez, olatuek marinelak irensten dituzten ala ez edo baleak txalupa suntsitzen duen ala ez (sugestio eginkizuna); azkenik, poema abesteko erabiltzen denez, irudian azaltzen dena antzeztu daiteke (adierazpen eginkizuna eta ludikoa). Irudia denotatiboa da antzeman daitekeen ekintza bat delako, baina aldi berean, ekintza bukatu gabe egoteak, balearen gorputzaren

zati gehiena izkutatuta egoteak, olatuen bortizkeria adieraztea eta txaluparen hauskortasunak, konnotatiboa egiten du (subjektiboa, irekia, hunkigarria, sentibera, konplexua, interpretazio askea…). Irudiaren koloreak (more iluna) hoztasuna, urruntasuna, iluntasuna eta intriga transmititzen du. Irudian, gizonezko generoaren estereotipoa azaltzen da; arrantzaleen lanbidea tradizionalki indarrarekin, arriskuarekin, ausardiarekin ezaugarritzen zelako. Orrialdea altueran eta zabaleran guarda granate batekin inguratuta dago (liburuxkaren bereizgarria). Horretaz gain, espazio-ontzi txiki baten eta izarretatik mundua begiratzen dagoen neskatxaren ikonoak daude. Hauek liburuxkan zehar errepikatzen diren elementuak dira.

17. irudia: “Landareen letra zopa”



Orrialde osoko ilustrazio honetan zuhaitz baten barruan dagoen letra zopa bat azaltzen da. Irudiaren beheko eskuin aldean landare bat ureztatzen ari den neska bat dago. Ilustrazioa marrazki sinple bat da, kolore laua, itzalita, hotza eta gutxi erakargarria duena. Liburuxkaren ohiko kolore bioleta dauka eta hau bera guarda eta bi ikono adierazgarrietan errepikatzen da (ikusi 16. irudia). Ariketa mota dela eta, irudiaren eginkizuna ludikoa da (letra zopa). Irudian landare bat ureztatzen ari den neska agertzeak genero esterotipotzat har daiteke, izan ere, tradizionalki zeregin hori neska edota emakumeei atxikitu izan zaie.

18. irudia: “Zabortegiak”

Orrialde honetan zabortegi baten argazkia nagusi da, beste argazki batzuk bere inguruan daudelarik. Guzti hauek orrialdearen bi heren hartzen dute eta bertan ikus daitezkeen koloreak errealistak dira. Goian dagoen guarda, argazki nagusitik hartutako zati bat izan liteke, gaiaren mugatzaile tematikoa delarik (zaborra eta zabortegiak). Neskatxa eta loroa, “Txanela proiektua”-ren material globalizatzaileen pertsonaietako bi dira. Hauek ikasleek landuko duten gaiaren inguruan berri ematen dute, galderak transmititzen dituzte eta testuaren irakurketa motibatzen dute bunbuiloen bidez. Bertan agertzen den neska bigarren mailako ikasleen adina izateak, berarekin identifikatuta sentitzea dakar; aurrez-aurre begira dago behatzailearekin komunikatzen. Aurretik egunean zehar sortzen ditugun zaborren inguruan ikusitako bideoan ikasitakoa oroitarazten digu orrialde honetan agertzen den loroa. Zabortegiaren irudi nagusiak eta ariketaren oinarriak hainbat eginkizun ditu. Alde batetik, testuaren irakurketa motibatzen du (eginkizun motibagarria) eta zabortegietan egiten diren lanak irudikatzen ditu (argibide-eginkizuna). Bestalde, irudia ikasleek bertatik informazioa atera dezaten erabiltzen da (analisia) eta jarraian azaltzen diren galderen inguruan taldean eztabaidatzera bultzatzen die. Modu honetan, irudira jakintzak transferitzen dira. Azaltzen den azkeneko eginkizuna adierazgarria da, izan ere, argazkia, berez, oso esanguratsua da eta ikasleek gaiaren inguruan eta bertatik sortu daitezkeen gaien inguruan dakitena adieraztea eta haien artean eztabaidatzea ahalbidetzen du. Irudi hau oso konplexua da (konnotatiboa) hainbat azpigai etiko eta moral iradokitzen dituelako. Orrialdearen beheko ezker aldean, kolore berdeko guarda bat azaltzen da zeinetan kolore berberako begi itxurako ikono bat azaltzen den, eta gezi batez beste bi ikonoen berri ematen du: liburu itxurako ikono gorri bat eta diska itxurako beste ikono hori bat. Honen arrazoia, material globalizatu honen lan metodologia proiektuen bidezkoa dela da, eta liburuxka eta material ezberdinak daudela. Begi itxurako ikono berdeak proiektuaren oinarria dela adierazten du; hau da, lantzen ari den unitate didaktikoa. Ikono honek irakurketa liburura eramaten du (ikono gorria); eta gero, jarduera entzun eta ikasiko duten abesti batekin jarraitzen da (diskaren ikono horia). Ikono hauek, proiektuaren material didaktiko osoan zehar errepikatzen dira. Orrialdearen beheko aldean, erdialdean hain zuzen ere, orrialdearen ikono adierazlea

azaltzen da zenbakiz eta letraz, eta honekin lantzen ari den unitate didaktikoaren gaia azaltzen da ere (lan produktiboa, lanbideak eta zaborrak). Unitate bakoitzeko liburuxkaren arabera ikonoa aldatzen da; adibidez, aurrerago itsasoaren gaian ikusiko den bezala, ikonoa bale batean bihurtuko da. Orrialdearen ikono adierazlearekin batera bi irudi erreal azaltzen dira (pilak eta esne ontzia). Azken argazki hauek ez daude bertan kasualitatez, izan ere, hurrengo orrialdean, ikasleek zaborrak dagozkien edukiontzian kokatu beharko dituzte.

19. irudia: “Gizakiok era askotan komunika gaitezke”

Irudia, orrialde osoa hartzen duen argazkien osaketa bat da, zeinetan liburuaren pertsonaiak hizketan ari diren. Hauetako hiruk, orrialdearen goiko aldean azaltzen dira gizakion arteko komunikazio era ezberdinei buruz hizketan. Pertsonaien arteko komunikazioa bunbuilo eran agertzen da, liburuxka hauetan ohikoa den moduan. Hainbat makinen gainean jarrita daude, hauek zenbatzen eta behatzaileari begiradarekin haien komunikazio eginkizuna iradokitzen. Orrialdearen beheko aldean, telefono klasikoaren gainean, loroa agertzen da. Honek, unitatean zehar (komunikazio erak) mikrofono baten ikonoa ateratzen den bakoitzean irrati saio bat sortzea proposatzen die. Beheko eskuin aldean, ekintza

osagarriak adierazten duten material honen ikono karakteristokoak dituen guarda bat dago: begi itxurako ikono horia (unitatearen edukiei erreferentzia egiten diona), liburu gorriaren ikonoa (irakurketa osagarria) eta ikono grisa (bideo osagarria). Orrialdearen beheko erdi aldean, orrialdeak indikatzeko ikonoa -zenbakizko eran eta modu idatzian- azaltzen da; kasu honetan, ikonoa telefono tradizionala izanik unitate didaktiko hau komunikatzeko era ezberdinen inguruan mintzatzen dela adierazten du. Hemeretzigarren irudi honen eginkizun nagusia gai zabalago bat lantzeko ikasleek bertatik informazioa ateratzea da (berez informaziozkoa eta azterketarako oinarria). Taldean eztabaidatzera eta ikasleek haien aurre jakintzak eta iritziak adieraztera motibatzen du (adierazpen eginkizuna eta motibagarria). Kolorean dagoen irudi sinplea da, transmititzen duen informazioa objektiboa delako. Koloreak anitzak dira eta horrek, irudia erakargarria izatea egiten du; fondo berdeak elementu guztiak hartzen ditu eta ikusmenari zentzu lasaigarria ematen dio (kasu honetan, irudia eskaneatua izan denez, berdearen tonalitatea galdu da, kolore horixka hartuz). Irudi honek gizarte mailako estereotipo batera bidea ematen du, izan ere, honekin eta haien arteko elkarrizketarekin neskatxak bere etxean, komunikaziorako erabiltzen diren makina moderno asko dituela aditzera ematen du. Baliteke gelan egoera berdinean ez dauden hainbat ikasle egotea.

20. irudia: “Nabigatzaileak eta haien aurkikuntzak”



Bi orrialde hartzen dituen kolorezko marrazki baten aurrean gaude; hau, antzinakoa eta figuratiboa delarik. Orrialdearen goiko aldean lau nabigatzaile eta aurkitzaile espainiarren erretratu enmarkatuak agertzen dira bakoitzaren azalpen txiki batekin. Horietako bat txuri-beltzean dago. Eskuineko aldean, Zuloagak eginiko Joan Sebastian Elkanoren gorputz osoko erretratua ageri da; eta bere ondoan bere identitatearen inguruko testu informatzailea. Elkanok munduko mapa bat dauka eskuan, zeina orrialdearen beheko ezker aldean handituta azaltzen den. Honetan, berak munduko buelta emateko erabili zuen ibilbidea adierazten da. Elkanoren ezkerreko sorbaldan material didaktikoaren bi pertsonaia marrazki eran txikituta azaltzen dira: neska eta mutila. Elkanoren ezkerreko hankatik paraleloan hiru ikono agertzen dira: begi berdea (unitatean ikusten den edukiaren erreferentzia egiten duena), arkatz granatea (idazketa liburuxkan lana dagoelaren adierazle) eta diska horia (entzun eta ikasteko abestia). Orrialdeen behe erdi aldean orrialdearen ikono adierazleak agertzen

dira; kasu honetan, bale berde bat da unitate didaktikoaren gaia itsasoarekin zerikusia duelako. Hauen goiko aldean eta zabalean koloreztatutako guarda bat ageri da, zeinetan nabigatzen dauden hiru karabela azaltzen diren. Guarda honen asmoa ariketaren tematika zein den adieraztea da (nabigatzaileak eta hauen aurkikuntzak). Ezkerreko aldean, modu gain-inprimatuan, interneteko lehiotxo bat gaiaren izenburuarekin eta liburuaren ikono adierazgarria (denboraren ontzia) galdera ikurraren bunbuila batekin ageri da. Izenburuaren hondoa kolore berdea dauka eta orrialdeena, ordea, txuria. Jarduera osatzen duten ilustrazioek eginkizun ezberdinak dituzte: testu txikien irakurketara motibatzea, Elkanoren lehendabiziko mundu bueltaren ibilbidea mapa mundiaren bitartez argitzea eta horren inguruko informazioa azaltzea. Gainera, ilustrazioek adierazpen eginkizuna betetzen dute ere, zeinarekin ikasleek taldean eztabaidatzeko eta ideiak adierazteko aukera izango duten. Ilustrazioen tonu iluneko koloreek pertsonaia hauen antzinatasuna adierazten dute, hau da, iraganaren parte direla. Ikasleek ezagutu ez duten iragan hau bakoitzak haien ezaguera pertsonalen, irudimenaren, intuizioen... arabera interpreta dezaten ahalbidetzen du. Guzti honek, irudiak konnotatiboak bilakatuz. Jarduera honen gaiaren pertsonaia guztiak (nabigatzaileak eta aurkitzaileak) gizonezkoak izatea genero estereotipotzat har daiteke. Hau bera, 16. irudian: “Itsas kontua”-n ikusi izan da.

21. irudia: “Galletak ekoizteko prozesua”

Gailetak egiteko jarraitu beharreko pausoak azaltzen dituen bi orrialdeko argazki multzoa da. Prozesua lau pausotan azalduta dago, hauetako bakoitza bere testua eta argazkia duelarik. Testutik hartutako informazioa azaltzeko eta zabaltzeko irudiak ageri dira zeinak argibide-eginkizuna duten. Ekoizpen prozesua azaltzen duten irudien inguruan, gailleten argazki oso iradokitzaileak azaltzen dira (eginkizun motibaltzailea). Lehendabiziko orrialdean goiko ezker aldean azaltzen den gailletak jardueraren izenburua dauka, eta jarraian, gailletak egiteko erabili izan diren lehengaiekin argazki konposizio bat egin da orrialdeen guarda bilakatu dena. Liburuaren hiru pertsonaien argazkiak ere ikus daitezke: loroa, txakurra eta mutila. Material didaktiko honetan ohikoa den bezala, ikasleekin bunbuilen bitartez komunikatzen dira eta hauei ariketak proposatzen dizkiete. Bigarren orrialdearen beheko eskuin aldean begiaren ikono berdea (edukien adierazlea) eta arkatzaren ikono morea (idazketa lan kuadernoan egin daitezkeen ariketa osagarrien adierazlea) daude. Azkenik, orrialdeen ikono adierazleak daude. Irudien multzoa sinplea da, eta produktu

baten inguruko ekoizte prozesua irudikatzen du. Irudien koloreak oso erakargarriak (kolore biziak) dira eta horregatik testuaren irakurketara motibatzen dute.

22. irudia: “Etorkin gazteen gizarteratzea”

Egunkaria | Abenduaren 10a

GIZARTEA

ETORKIN GAZTEEN GIZARTERATZEA

Egonaldia egin duten gazteetako batzuk

Foru Aldundiak eta Gurutze Gorriak dituzten bi etxeetan 200 gazte inguruk egin dute egonaldia dagoeneko.

Mirari Kuxkuxerogoitia. DONOSTIA

Bi harrera-etxe horietan etorkizunean bere kasa moldatzeko gai izan daitezen prestatzen dituzte gazteok.

Azken urteotan, bakarrik (familiako pertsona heldurik gabe) etortzen diren adin txikikoen migrazio-kasuak gero eta gehiago dira, eta Gurutze Gorrikoek eginiko iragarpenen arabera, etorkizunean are gehiago izango dira, gainera.

Arazoaren larriaz jabetuta, Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizartekintza departamentuak, Gurutze Gorrikoekin batera, laguntza-plana jarri zuen abian, 2002ko azaroan. Horren harira, hauxe esan zuen Enrike Samaniego Gipuzkoako Gurutze Gorriko zuzendariak: “Gero eta etorkin gazteagoak iristen dira Euskal Herrira eta prest egon behar dugu hauei laguntzeko”.

16 hamasei

Egunkari artikulu baten argazki irudi baten aurrean gaude. Bere kolorea txuri-beltza eta sepia kolorearen artean aldatzen da. Familia gabeko haur eta gazte etorkinak agertzen dira, zeinak harrera-etxeetan dauden. Orrialdearen erdia hartzen du. Irudiaren eginkizuna, testuaren aurrean egonik, honen informazioa aurreratzea eta irakurtzera bultzatzea da. Argazki honek, haur eta gazte hauen errealitatea adierazten du; baina, kolore hauen tonalitateak tristura eta urruntasun kutsua ematen die. Testu hau, adin hauetako ikasleen ulermen maila zein den kontuan izanik ulertzeko zaila da; eta gainera, irudiak ez du bere ulermenean laguntzen, dena den, jakintzen elkartrukatzea eta errealitate honen inguruan ikasleek dituzten proposamenak bultzatzen ditu (adierazpen eginkizuna).

23. irudia: “Ipar Amerikako indiarren mitologia”

Ilustrazio hau marazki abstraktua da, orrialdearen bi heren hartzen ditu eta testuaren azpian kokatuta dago. Testuaren edukia sekuentzia ezberdinetan irudikatutako hiru binetatan dago, baina testua aurretik ez irakurtzekotan, irudien esanahia ez da ulertzen. Testuak, Ipar Ameriketako indiarren mito batek dioenari jarraituz, munduaren sorrera kontatzen du. Irudiek eginkizun estetikoa dute. Koloreen aniztasunak misterioa, denboran urruntasuna, mundu sinplea eta primitiboa… iradokitzen du. Bai irudiak bai testua ere larru zurratu zati batean daude, eta irudiak indioen apaingarriei lotutako lumen barruan daude. Bere abstrakzio gradua dela eta, multzoa konplexua eta iradokitzailea (konnotatiboa) da. Ikonografia hain eskematikoa izanik, haurrek berehala ezagutzea edo antzematea dakar. Orrialdearen fondo okreak hutsik dagoen eta bere sorreraren esperoan dagoen mundua burura ekartzen du.

3.2. Emaitzen laburpen taula

2. taula: Irudien azterketa txantiloia

		1. irudia	2. irudia	3. irudia	4. irudia	5. irudia
1. Ilustrazio motak	1.1. Argazkiak					
	1.2. Marrazkiak	X	X		X	X
	1.3. Mapak					
	1.4. Grafikoak					
	1.5. Taulak					
	1.6. Ikonoak			X		
	1.7. Guarda edo orlak					
2. Formatua	Tamaina eta kokapena orrialdean	½ G	2/3 T	1	½ D	2
3. Eginkizun didaktikoak	3.1. Estetikoa					X
	3.2. Motibagarria	X	X			X
	3.3. Argibide-eginkizuna	X		X	X	
	3.4. Gaiak zedarritzea					
	3.5. Testuaren esanahiaren laguntzailea edo erredundantzia eginkizuna					
	3.6. Berez informaziozkoa: grafikoak, mapak, koadroak, argazkiak.			X		
	3.7. Gai baten azterketarako oinarria edo ezagutzak irudiari transferitzea					
	3.8. Diziplina ezberdinen arteko gai baten loturaren adierazlea edo diziplina bateko gaiak seinalatzea.					
	3.9. Ezagutzen ziurtatzailea edo ebaluatzailea			X		
	3.10. Bateratzailea					
	3.11. Eginkizun bikariala					
	3.12. Sugestio eginkizuna					
	3.13. Eginkizun ludikoa	X	X			X
	3.14. Adierazpen eginkizuna					
4. Irudi sinple edo konplexuak	4.1. Denotatiboak	X	X	X	X	X
	4.2. Konnotatiboak				X	X
5. Kolorea	5.1. Txuri eta beltza	X	X	X	X	
	5.2. Koloreak (hotzak/beroak)					X
6. Estereotipoak	6.1.1. Kulturala: etniko-arrazazkoa, erlijiosoa					X
	6.1.2. Gizarte mailakoak					X
	6.1.3. Fisikoak (gorputzezkoak)					X
	6.1.4. Genero	X				X
	6.1.5. Adina	X	X			X
	6.2.1. Walt Disney-ko pertsonaiak edota telebistako marrazki bizidunak					X
	6.2.2. Aurretik itxuraturiko eskematizatzeak	X		X	X	
	6.2.3. Animalien pertsonifikazioa					

Legenda: B, beheko aldean; D, diagonala; E, erdian; G, goiko aldean; T, triangeluarra; Txi., txikia.

2. taula (jarraipena): Irudien azterketa txantiloia

		6. irudia	7. irudia	8. irudia	9. irudia	10. irudia
1. Ilustrazio motak	1.1. Argazkiak				X	X
	1.2. Marrazkiak		X	X	X	
	1.3. Mapak					
	1.4. Grafikoak	X	X			
	1.5. Taulak					
	1.6. Ikonoak	X		X	X	X
	1.7. Guarda edo orlak			X	X	X
2. Formatua	Tamaina eta kokapena orrialdean	1/3 G	2/3 G/E/B	2/3 G	2/3 G	½ G
3. Eginkizun didaktikoak	3.1. Estetikoa	X				
	3.2. Motibagarria			X	X	
	3.3. Argibide-eginkizuna					
	3.4. Gaiak zedarritzea			X	X	X
	3.5. Testuaren esanahiaren laguntzailea edo erredundantzia eginkizuna					
	3.6. Berez informaziozkoa: grafikoak, mapak, koadroak, argazkiak.	X	X			
	3.7. Gai baten azterketarako oinarria edo ezagutzak irudiari transferitzea			X	X	
	3.8. Diziplina ezberdinen arteko gai baten loturaren adierazlea edo diziplina bateko gaiak seinalatzea.			X	X	X
	3.9. Ezagutzen ziurtatzailea edo ebaluatzailea					X
	3.10. Bateratzailea					
	3.11. Eginkizun bikariala					
	3.12. Sugestio eginkizuna					
	3.13. Eginkizun ludikoa					
	3.14. Adierazpen eginkizuna					
4. Irudi sinple edo konplexuak	4.1. Denotatiboak	X	X	X	X	X
	4.2. Konnotatiboak	X	X			
5. Kolorea	5.1. Txuri eta beltza					
	5.2. Koloreak (hotzak/beroak)	X	X	X	X	X
6. Estereotipoak	6.1.1. Kulturala: etniko-arrazazkoa, erlijiosoa					
	6.1.2. Gizarte mailakoak					
	6.1.3. Fisikoak (gorputzezkoak)		X			
	6.1.4. Genero					
	6.1.5. Adina					
	6.2.1. Walt Disney-ko pertsonaiak edota telebistako marrazki bizidunak		X	X		
	6.2.2. Aurretik itxuraturiko eskematizatzeak	X		X	X	
	6.2.3. Animalien pertsonifikazioa		X	X		

Legenda: B, beheko aldean; D, diagonala; E, erdian; G, goiko aldean; T, triangeluarra; Txi., txikia.

2. taula (jarraipena): Irudien azterketa txantiloia

		11. irudia	12. irudia	13. irudia	14. irudia	15. irudia
1. Ilustrazio motak	1.1. Argazkiak					
	1.2. Marrazkiak	X	X		X	X
	1.3. Mapak					
	1.4. Grafikoak					
	1.5. Taulak					
	1.6. Ikonoak	X	X	X		
	1.7. Guarda edo orlak	X	X	X	X	X
2. Formatua	Tamaina eta kokapena orrialdean	1/3 E	TXI. G	1	1	½ G
3. Eginkizun didaktikoak	3.1. Estetikoa					
	3.2. Motibagarria				X	X
	3.3. Argibide-eginkizuna		X			X
	3.4. Gaiak zedarritzea	X	X	X	X	X
	3.5. Testuaren esanahiaren laguntzailea edo erredundantzia eginkizuna		X			
	3.6. Berez informaziozkoa: grafikoak, mapak, koadroak, argazkiak.			X		
	3.7. Gai baten azterketarako oinarria edo ezagutzak irudiari transferitzea					
	3.8. Diziplina ezberdinen arteko gai baten loturaren adierazlea edo diziplina bateko gaiak seinalatzea.	X		X		
	3.9. Ezagutzen ziurtatzailea edo ebaluatzailea			X		
	3.10. Bateratzailea					
	3.11. Eginkizun bikariala					
	3.12. Sugestio eginkizuna				X	
	3.13. Eginkizun ludikoa	X			X	
	3.14. Adierazpen eginkizuna				X	
4. Irudi sinple edo konplexuak	4.1. Denotatiboak	X	X	X	X	X
	4.2. Konnotatiboak					
5. Kolorea	5.1. Txuri eta beltza	X				
	5.2. Koloreak (hotzak/beroak)		X	X	X	X
6. Estereotipoak	6.1.1. Kulturala: etniko-arrazazkoa, erlijiosoa					
	6.1.2. Gizarte mailakoak					
	6.1.3. Fisikoak (gorputzezkoak)					
	6.1.4. Genero					
	6.1.5. Adina					X
	6.2.1. Walt Disney-ko pertsonaiak edota telebistako marrazki bizidunak					
	6.2.2. Aurretik itxuraturiko eskematizatzeak	X	X	X		X
	6.2.3. Animalien pertsonifikazioa					

Legenda: B, beheko aldean; D, diagonala; E, erdian; G, goiko aldean; T, triangeluarra; Txi., txikia.

2. taula (jarraipena): Irudien azterketa txantiloia

		16. irudia	17. irudia	18. irudia	19. irudia	20. irudia
1. Ilustrazio motak	1.1. Argazkiak			X	X	
	1.2. Marrazkiak	X	X			X
	1.3. Mapak					X
	1.4. Grafikoak					
	1.5. Taulak					
	1.6. Ikonoak	X	X	X	X	X
	1.7. Guarda edo orlak	X	X	X		X
2. Formatua	Tamaina eta kokapena orrialdean	½ B	1	2/3	1	2
3. Eginkizun didaktikoak	3.1. Estetikoa					
	3.2. Motibagarria			X	X	X
	3.3. Argibide-eginkizuna	X		X		X
	3.4. Gaiak zedarritzea	X	X	X		X
	3.5. Testuaren esanahiaren laguntzailea edo erredundantzia eginkizuna					X
	3.6. Berez informaziozkoa: grafikoak, mapak, koadroak, argazkiak.			X	X	X
	3.7. Gai baten azterketarako oinarria edo ezagutzak irudiari transferitzea			X	X	X
	3.8. Diziplina ezberdinen arteko gai baten loturaren adierazlea edo diziplina bateko gaiak seinalatzea.	X		X	X	X
	3.9. Ezagutzen ziurtatzailea edo ebaluatzailea				X	
	3.10. Bateratzailea					
	3.11. Eginkizun bikariala					
	3.12. Sugestio eginkizuna	X				
	3.13. Eginkizun ludikoa	X	X			
	3.14. Adierazpen eginkizuna	X		X	X	X
4. Irudi sinple edo konplexuak	4.1. Denotatiboak	X	X	X	X	X
	4.2. Konnotatiboak	X		X		X
5. Kolorea	5.1. Txuri eta beltza					
	5.2. Koloreak (hotzak/beroak)	X	X	X	X	X
6. Estereotipoak	6.1.1. Kulturala: etniko-arrazazkoa, erlijiosoa					
	6.1.2. Gizarte mailakoak				X	
	6.1.3. Fisikoak (gorputzezkoak)					
	6.1.4. Genero	X	X			X
	6.1.5. Adina					
	6.2.1. Walt Disney-ko pertsonaiak edota telebistako marrazki bizidunak					
	6.2.2. Aurretik itxuraturiko eskematizatzeak					
	6.2.3. Animalien pertsonifikazioa			X	X	

Legenda: B, beheko aldean; D, diagonala; E, erdian; G, goiko aldean; T, triangeluarra; Txi., txikia.

2. taula (jarraipena): Irudien azterketa txantiloia

		21. irudia	22. irudia	23. irudia
1. Ilustrazio motak	1.1. Argazkiak	X	X	
	1.2. Marrazkiak			X
	1.3. Mapak			
	1.4. Grafikoak			
	1.5. Taulak			
	1.6. Ikonoak	X		
	1.7. Guarda edo orlak	X		
2. Formatua	Tamaina eta kokapena orrialdean	2	½ G	2/3 B
3. Eginkizun didaktikoak	3.1. Estetikoa			X
	3.2. Motibagarria	X	X	
	3.3. Argibide-eginkizuna	X		X
	3.4. Gaiak zedarritzea	X		
	3.5. Testuaren esanahiaren laguntzailea edo erredundantzia eginkizuna			
	3.6. Berez informaziozkoa: grafikoak, mapak, koadroak, argazkiak.			
	3.7. Gai baten azterketarako oinarria edo ezagutzak irudiari transferitzea		X	
	3.8. Diziplina ezberdinen arteko gai baten loturaren adierazlea edo diziplina bateko gaiak seinalatzea.	X		
	3.9. Ezagutzen ziurtatzailea edo ebaluatzailea			
	3.10. Bateratzailea			
	3.11. Eginkizun bikariala			
	3.12. Sugestio eginkizuna			
	3.13. Eginkizun ludikoa			
	3.14. Adierazpen eginkizuna			
4. Irudi sinple edo konplexuak	4.1. Denotatiboak	X	X	X
	4.2. Konnotatiboak		X	X
5. Kolorea	5.1. Txuri eta beltza		X	
	5.2. Koloreak (hotzak/beroak)	X		X
6. Estereotipoak	6.1.1. Kulturala: etniko-arrazazkoa, erlijiosoa			
	6.1.2. Gizarte mailakoak			
	6.1.3. Fisikoak (gorputzezkoak)			
	6.1.4. Genero			
	6.1.5. Adina			
	6.2.1. Walt Disney-ko pertsonaiak edota telebistako marrazki bizidunak			
	6.2.2. Aurretik itxuraturiko eskematizatzeak			
	6.2.3. Animalien pertsonifikazioa	X		

Legenda: B, beheko aldean; D, diagonala; E, erdian; G, goiko aldean; T, triangeluarra; Txi., txikia.

3.3. Emaitzen gaineko argudioa

Aurrerago esan dugun bezala, liburuetako hogeita hiru irudi/orrialderen azterketa egin da, hau da, irudi bat orrialde batean den ilustrazio eta testu multzotzat jo da. Haietatik hiru orrialde bikoitzekoak dira baina irudi/orrialde bakartzat jo dira. Irudi/orrialde batean ilustrazio mota batzuk egon daitezke.

Atal honetan, argudioa lanean planteaturiko helburuak aintzat hartuz egiten da.

3.3.1. Irudi motak eta iturriak

Irudi motei dagokienez, 23 orrialdeetan diren 51 ilustrazio ezberdin guztietatik:

- 6 (%12) argazkiak dira
- 15 (%29) marrazkiak dira
- 1 (%2) mapa da
- 2 (%4) grafikoak dira
- Ez dago datu taularik
- 14 (%27) ikonoak dira
- 13 (%25) guardak edo orlak dira

Emaitza horietatik ondoriozta daiteke azterturiko liburuetan gehien erabiltzen diren ilustrazio motak marrazkiak, ikonoak eta gaiak zedarritzeko guardak edo orlak direla.

Marrazkiak azterturiko 23 orrialdeetako 15etan agertzen dira. Horietako bostetan marrazkiak bakarrik daude. Gainerako hamarretan bestelako ilustrazioak ere badaude. Bost marrazki horietatik, hiru zuri-beltzekoak eta bi koloretakoak dira. Marrazki gehienetan haurrentzat bereziki aurretik itxuraturiko eskematizatzeak aurkitzen ditugu. Zuri-beltzeko marrazkiak, ikasleek jarduera bukatuz joatean, koloreztatzen ahal ditzaten proposatzen dira eta ez dute sormena estimulatzen, eskemak errepikatzea baizik. Marrazkiarekin bestelako ilustrazioren bat dagoenean (hogeita hiru orrialdeetatik hamarretan), edo aurretik itxuraturiko eskemei jarraitzen diete edo Disney edota marrazki bizidun motako estetika dute. Nolanahi ere, ikasleei aniztasun estetiko handiagoa agertzen diete zuri-beltzekoek baino.

Ikonoei dagokienez, materialak zenbat eta modernoagoak izan ikonografia hainbat eta gehiago erabiltzen dela ikus daiteke. Ikonografia ezberdina da argitaletxea eta helburu duen ikas eremua zein diren eta oso errepikakorra izaten ohi da. Ikonoak motibatzeko baliabidea dira, baita eduki edo egin beharreko jarduera mota ezagutzeko baliabidea ere. Beharbada azken hori dute eginkizun nagusia. Batzuetan sei ikono ere zenbatzen dira orrialdeko; eskuarki, jarduera batek beste jarduera osagarri batzuk proposatzen dituenean gertatzen da hori.

Guarda edo orlek ikonoen antzeko eginkizunak betetzen ohi dituzte: gaiak eta jarduera motak zedarritzen dituzte. Batzuetan kolore bakarra erabiltzen da lan koaderno oso batean zehar, eta beste batzuetan, kolore ezberdinez bereizten dira edukiak eta jarduera motak. Argitaletxeren batek argazki konposizioak erabiltzen ditu guarda gisa, zeinek unitatearen edo egin beharreko jardueraren gaia zedarritzen baitute, eta informazio iturritzat ere erabiltzen dira. Alde grafikoa gehien zaindu eta aparteko eta kalitate handiko lana egiten duten argitaletxeen kasua da hori.

Azterturiko orrialdeetan aurkitu den ilustrazio motari dagokionez:

- %30ean, orrialdeetako 7tan, ilustrazio mota bakarra agertzen da
- %26an, orrialdeetako 6tan, 2 ilustrazio mota
- %35ean, orrialdeetako 8tan, 3 ilustrazio mota
- %9an, orrialdeetako 2tan, 4 ilustrazio mota

Ilustrazio kopuru ezberdin hori delako *ikasgai edo eremuarekin* dago loturik. *Matematika* liburuek ilustrazio mota gutxiago erabiltzen dute, oro har marrazki eskematikoak. Badirudi haien xedea kalkulu, zenbaki balio eta problema ebazpen prozesuetan laguntzea dela. Eskuarki ilustrazioak oso homogeneoak eta kalitate txikikoak dira. Aitzitik, *Ingurunearen Ezaguerako* liburuetan erabiltzen diren ilustrazioak askotarikoagoak eta balio estetiko handiagokoak dira xedeak motibatu, ikasleek aurretik dituzten ezagutzak sorrarazi eta ezagutzak transmititu eta nork bere egitea baitituzte. *Irakurketa* liburuek testuaren gairako egokia den irudi mota bat aukeratzen ohi dute. Kalitate estetiko handiagokoak izaten dira eta irakurtzeko motibazioa ematen dute.

Ilustrazioen iturriak ez dira oso askotarikoak izan. Gehien-gehienak argitaletxeek eta bertako marrazkilari eta argazkilariek eginak dira. Kasu bakar batean jo zen eguneroko prentsara eta beste batean erretratu eta koadro historikoetara. Azterturiko irudiak Lehen Hezkuntzako bigarren mailako liburuetakoak dira eta, dirudienez, argitaletxeek beren ilustrazioak pertsonalizatzea aukeratzen dute ezaugarri gisa. Izan daitezke ekonomia alorreko beste arrazoi batzuk, egile eskubideei buruzkoak.

Azterturiko hogeita hiru orrialdeetan irudiek dituzten *tamaina eta kokapenari* (*formatua*) dagokionez:

- Haietako 14k (%61) orrialde erdia baino gehiago betetzen dute. Seik bi heren betetzen dute, bostek orrialde osoa, eta hiru orrialde bikoitzak dira.
- Haietako 6k (%26) orrialde erdia betetzen dute.
- Haietako 3k (%13) orrialde herena edo gutxiago betetzen dute.

Hortaz, bada, irudiek, oso presente egoteaz gain, azterturiko eskola orrialdeen parte handia betetzen dute.

Irudien *koloreari* dagokionez, azterturiko hogeita hiru orrialdeetako seitan irudiak zuri-beltzekoak dira, %26 alegia. Irudietako hamazazpi (%74) koloretakoak dira. Datuek irudien koloreak adin horretako ikasleentzat duen garrantzia erakusten dute. Koloreak erakargarriago egiten du jarduera eta egiteko motibatzen du. Koloreak testuaren bidez transmititu nahi denarekin bat etortzen dira. Lauak izaten ohi dira, nahasketarik gabeak, haurren margo kutxetatik ateratak, ikasleak erabiltzeko akuilatuko balituzte bezala. Arestian esan den bezala, argitaletxe batzuek kolore ezaugarri bat erabiltzen dute mota bereko jardueretarako, baita kolore bakar bat koaderno oso baterako ere. Kasu horretan, erakargarritasun eskasa izanik edo batere izan gabe batzuetan.

Azterturiko 23 orrialdeen *sinpletasun eta konplexutasunari* dagokienez,

- 14 (%61) sinple eta denotatiboak dira. Irudia objektiboa da, eskematizatzeak egin daitezkeen arren, irudikatzen duena da.
- 9k (%39) objektibotasuna eta subjektibotasuna nahasten dituzte. Nork bere eran interpreta ditzake. Halako karga konnotatiboa

daukate, zein adierazpen baliabide gisa erabil baitaiteke, errealitateak interpretatzeko orduan iritzi aniztasuna sustatuz. Gainera, sormenera bultzatzen duten irudiak izaten ohi dira.

3.3.2. Irudien eginkizun didaktikoak

Irudiek eginkizun bat edo gehiago izan dezakete aldi berean. Izan ere, 23 orrialdeetan azterturiko irudiei *81 eginkizun* aitortu zaizkie. Haien nagusitasunari dagokionez,

- %4k (eginkizunetako 3) eginkizun estetikoa du, gozatzeko balio du.
- %15 (12) motibagarria da, eskuarki irakurtzeko.
- %12k (10) testu bat azaltzeko edo argitzeko eginkizuna du.
- %16 (13) gaiak zedarritzekoa da, guardak edo orlak dira.
- %2k (2) erredundantzia eginkizuna du, testuaren esanahia sendotzen du.
- %9 (7) berez informaziozkoa da.
- %7k (6) gai baten azterketarako oinarritzat balio du edo ezagutzak transmititzen ditu.
- %12k (10) diziplina ezberdinen arteko gai baten loturaren adierazlea edo diziplina bateko gai bat seinalatzeko balio du.
- %5ek (4) ezagutzak egiaztatu edo ebaluatzea du eginkizun.
- %2k (2) irudimena eta sormena indartzen ditu (sugestio eginkizuna).
- %9k (7) gozamen edo josteta eginkizuna du (eginkizun ludikoa).
- %6k (5) norberaren adierazpena errazten du (adierazpen eginkizuna).

Aztertu ditugun orrialdeetan irudiek dituzten eginkizun nagusiak *gaiak zedarritzea*, *motibatzea*, *azalpenak ematea* eta *diziplina ezberdinen arteko gai bat aipatu edo lotzea* dira.

Orrialde berean agertzen diren *eginkizunen kopuruari* dagokionez,

- Orrialdeen %9k (2) eginkizun bakarra du
- %22k (5) bi eginkizun ditu

- %30ek (7), hiru eginkizun
- %17k (4), lau eginkizun
- %4k (1), bost eginkizun
- %9k (2), sei eginkizun
- %4k (1), zazpi eginkizun
- %4k (1), zortzi eginkizun

Azterturiko irudi/orrialde gehienek eginkizun bat baino gehiago dutela erakusten dute emaitzek. Orrialdean diren irudiek zenbat eta konplexuagoak izan hainbat eta eginkizun didaktiko gehiago dutela ere ikusi ahal izan da. Esaterako, 20. irudia: “Nabigatzaileak eta haien aurkikuntzak,” zeinek zortzi eginkizun baititu. Orrialde bikoitzeko irudia da eta ilustrazioak marrazkiak, mapak, erretratuak, ikonoak eta guardak dira. Horrelako ilustrazio aniztasunak hainbat eginkizun izaten ditu.

3.3.3. Irudiek testuarekiko duten entitatea edota mendetasuna

Gai hau azaltzeko, irudien eginkizun didaktikoez diharduen aurreko puntura jo behar da. Egiaztatu ahal izan den bezala, irudien %69k bi eta lau eginkizun artean betetzen ditu. Horrek azterturiko testu liburuetan ilustrazioek duten garrantzia adierazten du. Lehen Hezkuntzako bigarren ikasmailan, irudiek entitate handia hartzen dute, eta ez motibazio eta azalpen eginkizun soila izanik, testu liburu tradizionaletan lehen gertatzen ez zen bezala. Irudiak gero eta zainduago daude bai beren diseinuan bai beren helburuetan. Zenbat eta material hobeak, hainbat eta aberats eta konplexuagoak izaten ohi dira irudiak. Horiek ez dute objektuak eta errealitateak irudikatu soilik egiten, subjektibotasuna, sormena, originaltasuna… bultzatu ere egiten dute.

Esan liteke irudiak aurrera eginez eta entitate handiagoa izanez joaten direla. Ez daude besterik gabe testuaren mende, berak berezi egiten dituzten eta testu-irudi multzoa aberasten duten elementuak ematen dituzte. Ikusizko hezkuntza handi eta hobe bateranzko inflexio puntu bat antzematen da. Dena den, eskoletako zenbait liburutan alderdi hori hobegarri samarra da.

3.3.4. Azterturiko testu liburuetako irudietan azpian dauden balio soziokulturalak: estereotipoak

Azterturiko 23 orrialdeetako bederatzik (%39) *estereotipo* motaren bat du. 9 irudi horietan 14 estereotipo aurkitu dira:

- Haietako 5 (%36) genero estereotipoak dira
- 4 (%29) adin estereotipoak dira
- 2 (%14) estereotipo fisikoak dira
- 2 (%14) gizarte klaseko estereotipoak dira
- 1 (%7) etnia arraza motako estereotipoa da

Nabarmentzekoa da azterturiko 23 orrialdeetako batek bost estereotipoak dauzkala (5. irudia: “Pertsonaiak aurkeztuz”). Estereotipoak irudi bakar batean metatze horren ondorioz, ehunekoetan adieraztean, estereotipoek aztertu diren liburuetan duten presentzia putz daiteke. Izan ere, aurkitu dugun errealitatea ezusteko atsegina izan da: estereotipoak testu liburuetatik desagertuz doaz. Gaur egun argitaletxeek asko zaintzen dute alderdi hori. Adibidez, proiektu liburuak.

Genero estereotipoei dagokienez, haietako bi lanbide estereotipo sexistak ziren, bat neskatoren lanena, beste bat “neskato panpina” eta azkena mutikoentzako kanpaldi batena.

Adin estereotipoari dagokionez, kasu batean mutikoak bihurri agertzen dira, neskatoa “aberaskume”, neskatoak errebelde eta amonatxoa adeitsu, makurtu eta makiladun.

Estereotipo *fisiko* gisa, mutiko lau-begi eta ukondo-urratzailea eta mutiko lodia, zaldiarekin alderatua, aurkitzen ditugu.

Gizarte klaseko estereotipo gisa, familian oso zainketa handiak dituen neskatoa eta teknologia aurreratuko hainbat makina dituen neskatoa daude.

Azkenik, *etnia arrazako* estereotipoa koloreko neskatoak ingurunera ez egokitzearekin loturik agertzen da.

Bukatzeko, era berean estereotipotzat jotzen diren hiru blokeei dagokienez - produktu fabrikatuen imitazioa, aurretik itxuraturiko eskematizatze orokorragoak

eta animalia pertsonifikatzea-, 23 orrialdeetako 15etan (%65) daude estereotipo mota horiek. 15 orrialde horietan 18 estereotipo aurkitu dira:

- Haietako 3 (%17) haurrentzat fabrikaturiko produktuen imitazioak dira, Disney tipologiari edota marrazki bizidunei jarraitzen dieten marrazkiak.
- 10 (%55) aurretik itxuraturiko eskematizatzeak dira.
- Haietako 5 (%28) animalia pertsonifikatzeak dira.

Emaitza horiek lehenago aipaturikoak berresten dituzte. Hau da, *aurretik itxuraturiko eskemak* gainerakoei nagusitzen zaizkie, horiek marrazkietan agertzen dira.

ONDORIOAK

Eskolako testu liburuetako irudiak aurrera eginez eta entitate handiagoa izanez doaz eta haurraren ikaskuntzan zeregin garrantzitsua hartzen ari dira. Jada ez dute testuaren mendeko bigarren mailako zeregin bat bakarrik, askotan ikasgelan gauzatzen diren ariketa eta jardueren oinarria baitira. Gaur egungo materialetan ilustrazio aniztasun eta kopuru handiak ikusten dira, zeinek haurraren ikusizko idearioa hein handian handiarazten baitute. Orrialde berean argazkiak, marrazkiak, guarda edo orlak, ikonografia... egon daitezke, aniztasun tipologiko ikaragarria. Hala eta guztiz ere, oraindik izaten dira ikasgelan oso ilustrazio pobreak eta aniztasun tipologiko txikikoak dituzten liburuak. Ildo horretatik, irakasleen betebeharra funtsezkoa da, haien eskuetan daude material didaktikoaren hautaketa eta erabilera. Hortaz, materialak aukeratzeko orduan, ez dira idatziz transmititzen diren edukiak soilik kontuan hartu behar, baita irudien aberastasuna eta aniztasuna ere.

Irudiek, oso presente egoteaz gain, liburuen orrialdeen parte handi bat betetzen dute. Gero eta zainduago daude bai beren diseinuan bai beren helburuetan. Gehienak denotatiboak (monosemikoak) badira ere, materialak zenbat eta hobeak izan hainbat eta aberatsagoak eta konplexuagoak dira irudiak. Zenbat eta aniztasun tipologiko eta konplexutasun handiagoak agertu hainbat eta eginkizun didaktiko gehiago dutela ere dago frogaturik. Ezaugarri konnotatiboak (polisemikoak) hartzen dituzte eta horiek ikasleei arrazoitu eta berekin elkarrekintzan jardunarazten diete horiek beren interpretazioak, balorazioak, iritziak, konklusioak, e.a. egitera bultzatuz, subjektibotasuna, aniztasuna, sormena eta originaltasuna sustatzen dituzten aldi berean. Horregatik uste dut irakasleok, objektu eta errealitateak irudikatzen dituzten irudiez gain, ikaslearen pertsona eta ezagutza garapenean lagundu eta onura ekartzen duten beste batzuen alde egin beharko genukeela.

Estereotipoei dagokienez (kulturakoak, klasekoak, generokoak, fisikoak...), eginiko azterketatik ondoriozta daiteke testu liburuetatik desagertuz doazela. Egia da oraindik agertzen dituzten material batzuk badaudela, baina gaur egun hautematen da argitaletxe batzuek horiek kentzeko eta ikasgelan eta oro har munduan den aniztasuna normalizatzeko egiten duten ahalegina. Horiek asko zaintzen dute alderdi hori, proiektu liburuetan edota material globalizatuetan

ikus daitekeen bezala. Nolanahi ere, marrazki motako ilustrazio gehienetan baliabide gisa aurretik itxuraturiko eskematizatzeak eta marrazki bizidunen estetika (Disney marrazki klasikoak) erabiltzen direla hautematen da. Hori arazoa da argitaletxeak marrazki mota hori soilik erabiltzen duenean. Baina, arestian esan dudan bezala, ikasgeletan horrenbesteko arrakasta izaten ari diren eta hezkuntza pedagogia horrenbeste irauli duten material globalizatuek ilustrazio mota batzuk agertzen dituzte eta horrek ikasleei askotariko ikusizko ideario aberatsa harrarazten die.

ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK

Aguirre, I. (2000). Estereotipo, integración cultural y creatividad. En *Educación artística y arte infantil* (págs. 243-258). Madrid: Fundamentos.

Casablancas, S. (2001). En cuanto a las imágenes en textos escolares: función relevancia y características desde una perspectiva didáctica. [Disponible en (10/05/2013): http://www.silvinacasablancas.com/publicaciones/las_imagenes_en_textos_escolares_Silvina_Casablancas.pdf]

Díaz, M. Á. (2009). Imagen y pedagogía. *Cuadernos de Lingüística Hispánica,* 143-154, (13).

Efland, A. D. (2005). Infancia y cultura visual. En *Arte infantil y cultura visual* (págs. 51-69). Madrid: Ediciones Eneida.

Freedman, K. (2002). Cultura visual e identidad. *Cuadernos de pedagogía,* 59-61, (312).

Gardner, H. (1993). Explorando el misterio de la creatividad artística. En *Arte, Mente y Cerebro* (págs. 107-111). Barcelona: Paidós.

Hernández, F. (1999). Sobre la importancia de la cultura visual en la educación escolar. [Disponible en (10/05/2013): http://www.guiasensenanzasmedias.es/verpdf.asp?area=plastica&archivo=GR104.pdf]

Hernández, F. (2002). Educación y cultura visual: repensar la educación de las artes visuales. *Revista Aula de Innovación Educativa,* 6-9, 11 (116).

Marqués, P. (2000). La alfabetización audiovisual. Introducción al lenguaje audiovisual. [Disponible en (10/05/2013): http://peremarques.net/alfaaudi.htm]

Palacios, A. (2006). El dibujo infantil y la influencia de la cultura visual: todas las imágenes del mundo caben en un dibujo. *(Versión electrónica). Revista Aula de Infantil* 32.

Prendes, M. P. (1994). La imagen didáctica: análisis descriptivo y evaluativo. Tesis Doctoral. Universidad de Murcia.

Prendes, M. P. (1997). Análisis de imágenes en textos escolares: descripción y evaluación. *Píxel-Bit. Revista de Medios y Educación*, 1-21, 6.

Prendes, M. P. (2001). Evaluación de manuales escolares. *Pixel-Bit: Revista de medios y educación*, 7 (16).